

Anuntxi Arana

ANTROPOLOGOA ♦



GAIZKA IROZ

Ihiztari madarikatuak

ZUBEROTARREK *Bortüan Ahüzkü*, *ur onak osoki* kanta-tzen dute, munduko iturri onena dutelakoan, eta osagarria gainera. Mendi inguru hartan behiala izan ziren ostatuetatik bakarra geratzen da orain, udazkeneko igandeetan uso-ehiztariez beteta. Orduan mendikarientzat ez da giro. Txoriak ortzi mugan ageri eta eskopetadunak oihuka hasten zaizkizue: “Etzan, etzan!” Batzuetan zerutik behera berun eurixka eskaintzen dizuete, segur aski igartzen baitute “ehiztari madarikatuak!” marmarka zabiltzala.

Ehiztari madarikatuaren kon-daira oso ezaguna da. Apeza omen zen, mezako sagara esaten ari zela ehiza txakurrak erbi baten atzetik aditu eta, hostia utzi, arma hartu eta haien ondoan abiatu zen. Geroztik bere zaunkariekin airean ibiltzera kondenatua da betirako, sekula harrapatuko ez duen erbiari jarraika. Haize zakarra egiten duenean, tropa osoa sumatzen da harramantza handian zerua zeharka-tzen.

Ahüzkik ere badu holako *ihiztari beltza*. Baina, Xiberua Xiberu, airean ibili gabe lurpean aritzen da, hango leize sakon batean. Ortzantzak mendia ikara-tzen duenean, artzainek *ihiztariaren* adarra eta *ihizto*-ren zaunkak entzuten dituzte zulo barnean. Altzürükü Ürrütiko zalduna omen da, igande batez

meza utzi zuena orkatz baten atzetik joateko —noble bat ez zen erbi batengatik korrika hasiko.

Jaun hori gaiztoa bezain, zintzo zen haren emaztea, aingeru bat. Behin, mantala bete ogi jalgi zen gaztelutik, txiroei jaten emateko. Senarrak ikusi eta galdegin zion ea norat ari zen. Emazteak, lihoa zeramala ehule etxera. Gizonak mantala bortizki erausi eta...

lihoa zen lurrera erori, Hungariako Santa Isabelen mirakulu bera.

Beste istorio bat ere bada. Ürrüti horrek neska baserritar bat baitzuen maitale, haren etxera joan zen anderea eta ikusi zuen itzupazko mihiseak zituela. Gaztelutik lihozkoak hartu eta neskari eraman zizkion, esanez jauna ez zitekeela itzupazko mihisetan etzan. Senarra ez zen gehiago maitale harengana itzuli.

Andrearen izpiritu sotila nabarmentzeko kontatzen da istorioa.

Alta, ezinago itsusia da pobrengana erakutsi zuen nagusikeria. Noren baimenaz sartu zuen sudurra etxe hartako oheraino, egoiliarak apalesteko? Ez da ulertzen jauna kondenatu zuen herri tradizioak nolaz laudatu duen haren emaztearen destaina.

Ipuinen misterioak. Bitartean, andere fin hori hartu eta, bere senar eta gaineratik ihiztari madarikatuekin batera, orbitan ezarriko bagenu? ■



Ahüzkik ere badu holako “ihiztari beltza”. Baina, Xiberua Xiberu, airean ibili gabe lurpean aritzen da, hango leize sakon batean

DANI BLANCO



Edu
Zelaieta



IDAZLEA

Bigarrena

BIGARREN seme-alabaren esperoan dira. Lehen duela bost urte jaio zen; Naia izena du neskatxak. Bigarrenaren inguruan galdetuta, 30 urte pasako aitak zera dio: “Mutiko bat nahiago nuke. Hala ere, beste neskatila bat etortzen bada, ez dugu etxetik bidaliko, ezta? Dena den, egia da, bai: aurrekoa alaba da eta... mutikoa nahiago oraingoan”.

Bigarren seme-alabaren esperoan dira. Lehen duela bi urte eskas jaio zen; Ander izena du mutikoak. Bigarrenaren inguruan galdetuta, ia 40 urteko aitak zera dio: “Bada, nik beste mutiko bat nahiago. Ez dakit... Anaiarekin jostatzeko edo. Gainera, aurre-

koaren arropa guztia mutilarena da eta, bigarrena neska izanez gero, dena erosi beharko genuke berriz”.

Lehen semea nahiz alaba izan, mutikoa nahiago dute bigarrena. Diskurtsoan zalan-tza zerbait egin badute ere, barrenak ez du duda handirik erakutsi bietan: argudio ezberdinak baliatu dituzte ideia —emozio— bera defendatzeko. Inguruko jendeak ere badaki horren berri; izan ere, *bigarrenaren* gaia ateratzen den aldiro, irribarretxoak marrazten dira aurpegietan. Normaltasunak konplizeak ditu. ■

